



# KRISTAU-PRESTAKUNTZARAKO MATERIALAK

# 2024

## GAZTEEN KATEKESIA

### DOKUDRAMARI BURUZKO BIDEOFORUMA



Laburpena:

## Doce horas por la tierra

Dokudrama honek kontsumoaren, ingurumenaren eta garapenaren arteko harremanean sakontzen du. Santo Domingon, Liman eta Madrilen bizi diren hiru nerabe ezagutuko ditugu, beren egunerokoan. Bideoan, haien bizimodua zein desberdina den ikusiko dugu, eta bakoitzaren errealitatea nolakoa den: janaria alferrik botatzea, pobrezia, kontsumo-ohiturak, pilaketa, ingurumenaren degradazioa...

▲ IKUSI BIDEO HAU: [https://youtu.be/Mo7vKkkRg\\_4](https://youtu.be/Mo7vKkkRg_4)





Dokumentaletik hartutako irudiak.

## ▲ HAUSNARKETA - ELKARRIZKETA

- Zer sentitu duzu bideoa ikustean? Identifikatu zer sentipen piztu dizkizun.
- Zer iruditu zaizu harrigarriena?
- Transmititzen dituen mezuen artean, zein iruditu zaizu garrantzitsuena? Zergatik?
- Bideoko pertsonetatik zeinekin identifikatzen zara? Zergatik?
- Zein da bideoaren gai nagusia?
- Zein problema planteatzen ditu?
- Zein irtenbide proposatzen ditu?
- Bideoan jasotzen diren datuak 1995ekoak dira. Zure ustez, gaur egun ere halakoak al dira?
- Konparatu zure bizitza eta Pedro, David eta Enriquerena. Zein antzekotasun eta zein desberdintasun azpimarratuko zenituzke?
- Zer egin daiteke kontsumismoari eta planeta zaintzeari begira maila norberaren, gizartearen eta erakundeen aldetik?

